

Eguneroko gauzen balioa



Gure eguneroko objektuetatik abiatuta, gure intimitateari eta identitateari buruzko gogoeta egingo dugu. Konposizio grafiko eta fotografiko bat sortuko dugu geruzaz geruza egindako lanaren bidez.

Helburuak

- Gonzalo Nicuesaren obrara eta prozesuetara hurbiltzea.
- Eguneroko objektuen eta gure identitate indibidual eta kolektiboaren arteko lotura ikertzea.
- Arkatzez edo grafitoz marrazteko hasi-masietara hurbiltzea.
- Argazkien orrazketa digitalak digitalaren aukerak aztertzea.

Aipamenak

Series sobre lo cotidiano (Egunerokotasunari buruzko bildumak), Gonzalo Nicuesa: <http://gonzalonicsesa.blogspot.com/2012/04/series-sobre-cotidiano.html>

<http://gonzalonicsesa.blogspot.com/2012/04/mira-la-exposicion.html>

Where Children Sleep (Haurrek lo egiten duten tokia), James Mollison: <https://www.jamesmollison.com/where-children-sleep>

Francisco de Zurbarán: https://historia.nationalgeographic.com.es/a/francisco-zurbaran-genio-barroco-hispano_14867

Takashi Yasumura: <https://takashiyasumura.com/works/domestic-scandals/>

Exit aldizkaria. Arte y objetos cotidianos (Artea eta eguneroko objektuak): <https://exitmedia.net/EXIT/es/exit/65-EXIT-11-Objetos-cotidianos.html>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Gonzaloren pieza batzuk ikusiko ditugu eta haiei buruz hitz egingo dugu. Entorno Bilbao <http://gonzalonicsesa.blogspot.com/2013/02/seleccion.html>
Serie de dibujos sobre lo cotidiano (Egunerokotasunari buruzko marrazkien bilduma)<http://gonzalonicsesa.blogspot.com/2012/04/series-sobre-cotidiano.html>
2. Motxila, estutxea, tiradera edo armairua ireki, eta objektu bat aukeratuko dugu harekin geure burua aurkezteko edo gure egunerokotasunarekin zerikusia duen zerbaitez kontatzeko. Objektua mahai gainean jarriko dugu, eta, gauden tokitik, geure burua aurkeztuko dugu. Telefonoarekin argazki bat aterako diogu objektuari eta klasekideekin partekatutako Drive karpeta batera igoko dugu.
3. Lehenago egin dugun ekintzaren inguruko eztabaida txiki bat hasiko dugu. Erraza izan da gure nortasuna objektu batekin erlazionatzea? Objektuak edo aurkezpenak errepikatu dira? Uste duzu zure gurasoek objektu hori bera aukeratuko zutela haiek aurkezteko? Eta zure irakasleak? Zer objektu uste duzu aukeratuko zutela?
4. Hurrengo saioan, gure logelan dauden gustuko objektuen argazkiak (edo argazki bakarra) ekarriko ditugu. Edozein arrazoirengatik hauta ditzakezu: estetika, erabilgarritasuna, pizten dizkizun oroitzapenak... Erretratatzeko arrazoi horiek idatzi egingo ditugu.

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Egunerokotasuna lantzen duten beste artista batzuk bilatuko ditugu eta natura hilen ideian jarriko dugu arreta. Inspiratzen gaituzten artistak aukeratuko ditugu: XX.

mendearen aurreko bi eta gaur egungo beste bi. Infografia bat sortuko dugu informazio horrekin, eta ahoz aurkeztuko dugu klasekideen aurrean.

2. Behatze-jarduera zehatzenarekin hasiko gara: marrazketarekin. Klasekideen argazki guztiak biltzen dituen karpeta partekatua aztertuko dugu, eta gustatzen zaigun bat hautatuko. Saio batzuk emango ditugu objektu hori arkatez edo grafitoz zehatz-mehatz marrazten. Kuadríkula bat erabiliko dugu ahokatzeko, marrazki errealista bat lortzeko asmoz, bolumenarekin eta argi-itzaletan.

3. Irudi berarekin jarraituko dugu. Orraztu digitalak egiteko lineako programa bat erabiliko dugu oraingoan. Kolorearen ezarpenekin eta programaren iragazkiekin esperimentatu egingo dugu jatorrizko irudiaren kolorea erabat aldatzeko.

4. Marrazki eta argazki orraztuak karpeta partekatura igoko ditugu. Klasearen adierazgarri diren irudiak aukeratuko ditugu eta bodegoi digital edo analogiko bat sortuko dugu.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Audio bat grabatuko dugu gure lan-prozesua eta emaitzak azaltzeko. Gaiei, teknikiei, erreferente artistikoei eta abarrei buruz hitz egingo dugu.

Jendea igarotzen den eskolako leku batean jarriko ditugu emaitzak ikusgai, eta audiogida atzitzeko QR kode bat gehituko dugu.